

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AIREONTZI-KANPOALDEKO MANTENTZE-LAN OSAGARRIAK	Iraupena	40
		Espezifikoa	
Kodea	UF0957		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Aeronautika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Aeronautikako mantentze-lan osagarriak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Aireontziko lan osagarriak.	Iraupena	150
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Aireontzi-barrualdeko mantentze-lan osagarriak.	Iraupena	30
	Aireontziko zerbitzu-lan osagarriak.		50
	Aeronautikako segurtasuna eta laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa (Zeharkakoa).		30

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1315\_1 AIREONTZIKO MANTENTZE- ETA ZERBITZU-LAN OSAGARRIAK EGITEA gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Aireontzien konfigurazioa modu orokorrean deskribatzea eta sistemak eta osagaiak eta haien oinarritzko zatiak identifikatzea.
- E1.1 Oinarritzko aerodinamika eta hegan egiteari buruzko teoria —aireontziek hegan egitearen funtsa— deskribatzea.
  - E1.2 Aireontzien sistema mekanikoak (lurreratze-trena, motorrak, hegaldi-aginteak), hidraulikoak eta pneumatikoak (aire girotua, presurizazioa, aireztapena eta izotzaren kontrako sistema, besteak beste) eta haien funtsezko ezaugarriak identifikatzea.
  - E1.3 Korrosioak kaltetzeko arrisku edo aukera handiena duten eremuak identifikatzea.
  - E1.4 Aireontzia eta aireontziko langileak babesteko kontuan hartu beharreko neurri garrantzitsuenak deskribatzea.
  - E1.5 Aireontzien nabigatzeko (kanpoko instalazioak) eta komunikatzeko sistemak identifikatzea.
- A2: Aireontziak behar dituen lan mekanikoak egitea, ezarritako prozedurak betez eta beharrezko makina eta ekipoak trebetasunez erabiliz.
- E1.2.1 Aireontziko ate, erregistro, kanpoko panel eta antzekoak irekitzeko, ixteko eta blokeatzeko mekanismoak identifikatzea.
  - E1.2.2 Fluidoan, olioan eta koipean ezaugarriak azaltzea, oxigenoa, nitrogenoa, zigilatzaileak, koipeak, sodio hipokloritoa eta antzekoak erabiltzea eta haiek manipulatzeko neurriak hartzea.
  - E1.2.3 Aireontziaren zatiatar (helizeetara, motorrera, hegaldi-aginteetara, tren-konportetara eta fuselajera, besteak beste) ibilgailuz edo oinez hurbiltzeko hartu beharreko neurriak azaltzea.
- A3: Aireontziak behar dituen lan elektriko eta elektronikoak egitea, ezarritako prozedurak betez eta beharrezko makina eta ekipoak trebetasunez erabiliz.
- E1.3.1 Korrante-motak identifikatzea, sistemaren eta energia-iturrien arabera.
  - E1.3.2 Eskema elektrikoak interpretatzea, dagokion sistemaren dokumentazio teknikoaren arabera.
  - E1.3.3 Sistema elektriko eta elektroniko ohikoenen elementu eta osagaiak identifikatzea.
- A4: Lana egiteko araudia hautatzea eta prozedurak identifikatzea eta lanpostuari dagokion mailan betetzea.
- E1.4.1 Aireontzien mantentze-lanak egiteko eskuliburu-motak ezagutzea.
  - E1.4.2 Mantentze-lan bakoitza egiteko beharrezko datu, txosten eta ebaluazioak zehatz-mehatz eta behar bezala islatzea, horretarako prestatutako dokumentu ofizialetan.
  - E1.4.3 Lan-aginduak (AD, SB, IT) identifikatzea.

##### Edukiak

##### 1. Aireontziei buruzko oinarritzko kontzeptuak.

- Oinarritzko aerodinamika. Hegan egiteari buruzko teoria.
- Aireontzia osatzen duten elementuak. Egitura.
- Fuselajea: Branka. Erdialdeko eta atzealdeko fuselajea.
- Hegaletako multzoa: Plano ertaina eta kanpo-hegalak.
- Isatseko multzoa: Egonkorgailu bertikala eta egonkorgailu horizontala. Kanpoko sistemak.
- Lurreratze-trenak.
- Potentzia-instalazioa.
- Ateak eta arrapalak.

## 2. Sistema mekanikoen mantentze-lanak.

- Sistema pneumatikoen eta hidraulikoen oinarriko kontzeptuak.
- Hegaldi-aginteak.
  - Lehen mailako hegaldi-aginteak: aleroiak eta lemak.
  - Bigarren mailako hegaldi-aginteak: flapa, spoilerria, slata eta hegalak.
- Fluido-sistemak.
  - Sistema hidraulikoak: lurreratze-trenak, gidatze-ahalmena, arrapalak eta karga-ateak.
  - Sistema pneumatikoak: aire girotua, presurizazioa, izotzaren aurkako sistema.
  - Erregai-sistema.
  - Oxigeno-sistema.
  - Suteak itzaltzeko sistema.
  - Haizetako-garbigailua.
- Motor-aginteak.
  - Potentzia-palanka.
  - Kondizio-aginteak.
  - Kontrol-sistemak: HMU, FADEC.
- Dokumentazio teknikoa, tresneria eta erremintak.
- Sistemaren arreta-neurri espezifikoak.

## 3. Sistema elektrikoek mantentze-lanak.

- Sistema elektrikoek eta elektronikoek oinarriko kontzeptuak.
- Sistema elektrikoak.
  - Korrante-motak.
  - Bateria.
  - Korrante-sorgailuak: barrukoak edo kanpokoak.
  - Korrantea banatzeko barrak.
  - Argiztapen-sistema: kanpokoak eta barrukoak.
  - Adierazle-sistema.
  - Sistema osagarriak: berokuntza eta aire girotua, trenak, elektrobalkulak.
- Sistema elektronikoak.
  - Sistema analogikoak.
  - Sistema digitalak.
  - Komunikazio- eta nabigazio-sistemak.
  - Misio- eta armamentu-sistemak.
- Dokumentazio teknikoa, tresneria eta erremintak.
- Sistemaren arreta-neurri espezifikoak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Aeronautikako mantentze-lan osagarriak